



Eskualdeko Ibilbideen egun ederra

Herritik abiatu zen mendizale taldeak giro ezinhobearen burutu zuen Lasarte-Oria eta Andoain arteko bidea. Atzo izan zen Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna, eskualdeko Udal eta Kirol Patronatuak antolatuta. Haurrak eta lokatza izan ziren protagonista nagusiak atzokoan eta ibilbidea egin zutenak ez ziren damutu. /4. orrialdea



Ezohiko dantzaldia ikusteko parada izan zen larunbat arratsaldean kultur etxean.

Emozioekin dantzan

Ion Munduateren ikuskizunean izan zirenek asko gozatu zuten bere koreografia eta sentimenduen nahasketarekin

Zuria eta beltza. Poza eta tristura. Irribarrea eta malkoa. Maisuki uztartu zituen Ion Munduateren konpainiak gizakiok izaten ditugun emozioak. Argi-joko bikainez eta pianojole baten nota goxoez girotutako emanaldia izan zen. Jendeak esku-zarta luze batekin agurtu zituen artistak. •

Inaugurazioa eta kontzertua

Olaizola-jauregui abokatuak bere 25. urteurrena ospatu zuten ostiralean. Lehenik Geltoki kalean jarri duten bulego berria inauguratu zuten Ramon Uribetxebarria apaizaren laguntzaz. Ostean, guztiak Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren. Bertan Aurora Parra sopranoaren eta Amaia Zipitria piano jolearen kontzertua izan baitzen. Kalitatezko kontzertua eskaini zuten. Lehenengo zatian Sorozabalen eta hainbat operen doinuak entzun ziren. Bigarrenean, aldiz, zarzuela izan zen nagusi. •



Zipitria piano jolearen eta Parra sopranoaren kalitateaz gozatu zuten kultur etxeko aretora hurbildu zirenek.

ELKARRIZKETA/2

Bea Egizabal ipuin kontalariarekin solasean

ALBISTEA /3

Urriaren 23an
gingo da Jubilatuen
XXI. ibilaldia
Lasarte-Orian

ALBISTEA/6

Udalak harremanak
hasi ditu parte
hartzea bultzatzeko

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



ELEKTRIZITATEA
ARREGUI



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin Kalea 1/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Beatriz Egizabal KontuKantoi taldeko ipuin kontalaria

“Ipuina bera da magikoa, bidaiatzera gonbidatzen zaituen istorioa”

■ Adin guztiei zuzendutako ipuinak daudela defendazen du ipuin kontalariak ■ Udalak haur liburutegian antolatutako ipuin kontalarien egitarauen parte hartzen du KontuKantoi bezala

Ipuinak ez dira umeentzako soilik. Hau da Bea Egizabal Lasarte-Oriako ipuin kontalarilak defendatzen duen ideia. Orokorrean publiko txikiari zuzendutako saioak programatzen diren arren, bestelako ipuinak ere badaudela dio Egizabalek. Honen ustetan, haur, gaztetxo zein helduek ipuin on batekin disfrutatu eta emoziozko gaitasun bera dute. Ipuinek adin mugarik ez dute.

MAIDER AZURMENDI

KontuKantoi ipuin kontalari taldea osatzen du Beak bere bikote Cesar Marcos-ekin batera. Beak ipuina kontatu bitartean, Cesarrek Bearen hitzak koloreztatzen ditu. KontuKantoi Lasarte-Oriako udalak antolatutako Ipuin Kontalariak 2011 egitarauen parte hartzen du Pello Añorga eta Koruko Zurutuzarekin batera. Bikoteak dagoeneko lehen saioa eskaini du.

Nola aukeratu du kontalariak saio bakoitzeko ipuina?

Kontalari bakoitzak bere irizpideak jarraitzen ditu. Batzuetan ipuin tematikoak eskatzen dituzte saioaren antolatzaileek, adibidez ura edo zuhaitzen ingurukoak. Kasu hauetan aukeraketa mugatuta duzu eta ipuin gutxiagoren artean egin behar da azken hautaketa. Bestela, ipuin asko irakurri behar dira eta horien artean, saioaren testuingurua ere kontutan izanda, gehien gustatzen zaidana aukeratu da.

Dena den, aukeraketa prozesuan bereziki beti zaintzen ditudan aspektuak daude. Esaterako, istorioa perspektiba feminista batetik kontatzen saiatzen naiz. Ez dut ipuin panfletariorik egiten, ez ditut gogoko moralejak edo irakaspak dituzten istorioak. Adibidez, aurreko saioko ipuinean autobus gidari bat agertzen zen eta nire ipuinean gidaria Marisa zen. Horrelako gauzak zaindu eta moldatzen ditut. Estereotipoak nolabait apurtzea da nire helburua nahiz eta askotan zaila izan.

Generoaren ikuspegia soilik zaintzen duzu?

Ez. Gida generoarekin zerkusia dutenak direla agian nabarmenenak, printzeak beti salbatzen du printzesa ezta? Askotan istorioetako protagonisten izenak aldatzen ditut

eta Mohamed bezalakoak ematen dizkiet.

Gainera kontutan izan behar da 6 eta 7 urterekin haurrek dagoeneko estereotipoak finkatuta dituztela. Horrelakoekin apurketa bat eragin eta hauen arreta gureganatzen dugu. Tontakeriak iruditu arren, haurrengan duten efektua eta erantzuna baloratu behar da. Ahotsekin ere lortzen dugu haustura hori, amabitxiak beti dute ahots fina eta gozoa, ba guk agian oso zakarra jartzen diogu.

Zergatik finkatzen dira adinaren saio bakoitzeko? Ipuinaren gaian dago ezberdintasuna?

Batzuetan ipuin berdinak izan daitezke adin guztientzat aproposak. Ipuinaren gaiak ez du berez ezberdintasuna markatzen. Ipuin batzuk aproposagoak dira haur txikiarentzat eta beste batzuk ordea, gaztetxoenentzat. 6 eta 7 urtekoek ondo hartu dezakete istorio bat eta 3 urteko umearentzat istorio berdina guztiz aspergarria da.

Horretaz gain, jarrerak baloratu behar dira. Ez da berdina 6, 7 urtekoek zurekiko duten jarrera ezta beraieki zuzentzeko modua ere. Dagoeneko hauek ez dira haur txikiak eta gainera txikiak bailiran tratatzea ez zaie gustatzen. Kontalariak jakin behar du publikoaren adina zein izango den eta horregatik finkatzen da, istorioa modu batean edo bestean prestatzeko.

Saioetan haurrak bakarrik egotea garrantzitsua al da?

Gurasoek saioetan sartzen badira eta euren jarrera ona bada, oso saio politak atera daitezke. Gertatzen dena da batzuetan sartu eta umeentzako saioak direnez, helduek uste dugu bertan egon gaitzkeela beste gai batez hitz egin edo bokata ematen. Horrelako jokoarek asko zailtzen dute



saioa eta horregatik umeak bakarrik sartzearen baldintza jartzen da leku askotan. Bestetik garrantzitsua da haurrak bakarrik egoten ikastea ere.

Ipuinak behin baino gehiagotan kontatzen al dituzu?

Bai noski gainera istorioak asko aldatzen ditut. Lehen aldiz edo hamargarrenean kontatzearen artean kriston aldea dago, azkenean hasierako ipuina beste bat dirudi. Gainera haurren aportazioak gehitzea gustatzen zait eta horren arabera noa istorioa bera birmoldatzen.

Nola lortzen da haurren arreta eskuratzeko?

Ipuina bera magikoa da, bidaiatzera gonbidatzen zaituen istorioa. Haurrek bazen behin entzun eta badakite ipuina, bidaia, badatorrela. Ipuinak berak jakin-mina sortzen du, istorioek indar handia dute. Haurrak jakin nahi du gero zer gertatzen den, eta gero zer, eta gero? galderak ere egiten dituzte eta oso aberasgarria izan daiteke. Horrela arreta berez lortzen duzu.

Guk ipuina kontatzeaz gain, ilustratu egiten dugu. Marrazkiek asko laguntzen dute kontaketan eta atentzioa deitzen dute.

Saio zailik izan al duzu?

Noski baina saio zailak izan direnean, gehienetan ez da umeen edo ipuinen errua

izan. Hau da, leku txiki batean haur gehiegi sartu dituztelako edo lekua berez zaratatsua zelako haurrak despistatzen dira eta egoera horietan bai da zaila euren arreta guztia lortzea. Gertatu zaigu ere festa giroan gaudela ipuin kontalaria sartzea eta kasu batzuetan agian ez zen momentu hobereana, haurrek dantzan jarraitu nahi dute eta ez ipuina entzuten jarri.

Gurasoek kontatzen al dituzte nahikoa ipuin ?

Guraso bezala da guraso asko direla haurrei ipuinak irakurtzen dizkietenak, lo hartzeko garaian batez ere, baina ez dira ausartzen kontatzea. Umeei istorioak kontatu behar zaizkie, ahotsak aldatu, interpretatu, oso aberasgarria da.

Noiz hasi behar da haurrei ipuinak kontatzen?

Guraso bezala txiki txikitatik hasi daitekeela esango nuke, lau, bost hilabete dituztenetik. Noski ipuin laburrak, lau lerroko istorioak. Adin horrekin umeek nabaritzen dute ahotsa aldatzen ari zarelako hortaz zerbait desberdina ariko zara kontatzen eta horregatik arreta jarriko dute. Askotan kantetako letrak izan daitezke ipuin. Oso garrantzitsua da gurasoek ipuinak kontatzea, haurrek istorioa baino gehiago lotura afektibo hori eskertzen dute eta merezi du denboratxo bat horri eskaintzea. Ipuinekiko zaleta-

Ipuin kontalariak

Saio guztiak, Haur liburutegian dira arratsaldeko 18:00etan

Urria

18 Pello Añorga (4-5 urtekoentzat)

Azaroa

2 eta 23 Koruko Zurutuza (5-6-7 urtekoentzat)

8 Pello Añorga (4-5 urtekoentzat)

15 eta 29 KontuKantoi (6-7-8 urtekoentzat)

Abendua

14 Pello Añorga (4-5 urtekoentzat)

sua sustatzea garrantzitsua da baita ondoren irakurketarekiko zaletasuna bultzatzeko ere.

Ipuinak noiz arte? Adin mugarik ba al da?

Ez. Hori da gaintu beharreko erronka. Gaztetxoenentzako eskaintzen diren gauzen artean oso gutxitan sartzen da kontalaritza. Duten adina kontutan izanda, kontatzeak era eta istorio egokiarekin asko disfrutatzen dute ere ipuin bat. Helduekin berdin. Istorio aproposak adin guztientzat daude. Ipuina entzuten, konturatu gabe bidai batean murgiltzeko gaitasuna ere badugu helduek eta askotan emozionatu ere egiten gara. Sentsazio berrietara ireki behar gara eta guk ere irudimena dugula gogoratu.

Zer esango zenieke herritarrei saioetara gertura daitezen?

Eskertzekoa da urtero ipuin kontalarietara tartea egitea, besteak beste izaskunek egiten duen apustua apiatuko nuke. Hiru hilabeteetan zortzi saio antolatu dira aurtengoan eta Koruko Zurutuza, Pello Añorga eta gu izango gara kontalari lanetan. Añorgaren presentzia bereziki azpimarratuko nuke izan ere, aitzindari izan da ipuin kontalaritza eta beste kontalarientzat erreferente da, maisua. Azkenik, gurasoei esan haurrek oso ondo pasatzeaz gain, esperientzia polita biziko dutela eta beldurrik gabe gerturatuko. •

Gipuzkoako jubilatuen Lasarte-Orian

Urriaren 23an, igandean, ia 600 zaharrek parte hartuko du Jubilatuen XXI. ibilaldian

1991. urtean Zarautzen egin zen Gipuzkoako Jubilatuen eta pentsiodunen lehenengo ibilaldia. Lasarte-Oriak 1998an hartu zuen lehenengoz ekimena eta aurtengoa, berriro ere, XXI. edizioa izango da gure herriko kaleetan. Duela, hamahiru urte 592 gipuzkoar bildu baziren ere, aurtengoa 568 izango dira.

Gipuzkoako jubilatuen eta pentsionisten hitzordua duela urriaren 23an gure herrian, Gipuzkoako Jubilatuen XXI. ibilaldian.

Ostiralean, Biyak Bat erretiratuaren elkartearen aurkezten zen ekimena. Besteak beste, Gipuzkoako jubilatuen eta pentsionisten elkartearen lehendakari ordea, Iñaki Goikoetxea, Murtze Galdos Biyak Bateko lehendakaria, Pablo Barrio alkatea eta Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetakoa zinegotzia egon ziren ekitaldian.

Iñaki Goikoetxeak azaldu zuenez, Gipuzkoa osoko 568 pertsona bilduko dira Lasarte-Orian.

Ibilaldia

Goizeko 11:00etan hasiko da ibilaldia Okendo plazan. Lau pertsonako taldeetan egingo dute ibilbidea eta honela, guztira 142 patruila ibiliko

dira gure herriko kaleetan zehar.

Biyak Bat elkarteak hiru patruila berezi izango dituela jakin arazi zuen Goikoetxeak "ekimenari hasiera ematen dion patruila. Erdian beste bat herriko Udaleko gonbidatuekin eta amaieran bestea".

Honetaz gain, ibilaldiko partehartzaileek kamiseta berezia izango dute eta identifikatuak joango dira. Kamiseta horietako bat Udalarari oparitu zioten aurkezpenean.

Ibilbidea

Exiquio Perez Biyak Bateko zuzendaritzako kideak ibilbideak zazpi kilometro izango dituela azaldu zuen.

Okendo plazatik atera, eta Zumaburu aldera egingo dute kale Nagusitik, gero Zumaburu parkean ibai ondoan hartu eta Bruneteraino joango dira. Bertan buelta eman eta Zirkuitu



Gipuzkoako jubilatuen eta pentsionisten elkartearen kideak, Biyak Bateko zuzendaritzako kideak eta Udalarari oparitu zioten aurkezpenean.

ibilbide eta Oria etorbideetatik erdi aldera bueltatuko dira.

Loidi-Barrenko pilotaleku aldera egingo dute eta San Pedro eliza ondotik Kale Nagusira. Tajamarreko bihur-gunea pasa eta Villa Mirentxutik barrena Somoto ibilbidea egingo dute. Hortik Atsotak Parkea zeharkatu eta Green plazara. Froilan Elespe parketik Urbil aldera egingo dute eta errotondatik Okendorako bidea hartuko

dute Pintore kaleak.

Bide honetan guztian, hiru kontrol pasa beharko dituzte. Hauetan komunak egongo dira eta ibilbideko bigarren zatia hasi baino lehen, Loidi-Barrenko pilotalekuan jatekoa eta edatekoa izango dute.

Bazkaria eta opariak

Talde guztiek ibilbide amaitzean, indarrak berritzeko ordua etorriko da. Guztiak Michelingo pilotalekura hur-

biduko dira eta bertan bazkaria eta dantzaldia izango dute.

Bazkarian, gainera, oroigarriak emango direla aurreratu zuen Iñaki Goikoetxeak, "hiru plaka banatuko dira. Lasarte-Oriako Udalarari patruila zaharrenari emango dio. Gipuzkoako elkarteak Udalarari emango dio eta Euskadiko elkarteak kideek Biyak Bati. Eta taldeen artean zozketa bat ere egingo da".

Lasarte-Oria Bai! Krosa Okendo Plazara itzuliko da

Lasterketa urriaren 30ean burutuko da eta gaur bertan zabaldu da izena emateko epea

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak ostiral arratsaldean aurkeztu zuen Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoien XVI. edizioa. Okendo plazako obrak bukatuta, lasterketa bertan amaituko dela iragarri dute antolatzaileek. Hasiera, berriz, Geltoki kalean izango da, Frutas Ruiz fruta-dendaren parean. Berrikuntza asko izango dira aurtengoa. Dorsalak, txipak eta kamiseta teknikoak lasterketa egunaren bezperan (arratsaldeko 15:00etatik 19:30etara) edo lasterketa egunean bertan (goizeko 9:00etatik 10:00etara) Mitxelingo frontoian banatuko dituztela iragarri dute, eta ibilbideak aurreko urtean baino 500 metro gehiago izango dituela, besteak beste.

Lasterketa urriaren 30ean egingo da, goizeko 10:30etan hasita. Joan den edizioan bezala Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia "Lasterketa Herrikoien II. Ligarako" puntuagarria izango da.

Bi urteko parentesiaren ondoren, krosa Okendo plazara itzuliko da: "Guretzat Okendo plazak sinbolismo berezia du; Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia bertan jaio

zelako, eta lasarteoriarat bezala, gune hori berreskuratu behar dela pentsatzen dugu. Herri bizia nahi badugu, erdigune bizia behar dugu, eta Okendo plazak funtzio hori bete behar duela uste dugu", aitortu dute antolatzaileek.

Ohorezko dorsala

Azkeneko bi edizioetan bezala, aurkezpen ekitaldia 1 zen-



Ostadarreko ordezkariak eta ohorezko dorsala Okendon egindako aurkezpenan

bakidun dorsala banatzeko baliatu dute.

Aurtengoa Nieves Cívicosen izango du ohore hori. Nieves

Cívicosen Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoien filosofiarekin bat egiten duela uste baitute antolatzaileek

Izen-ematea,

Izen-ematea gaur, urriaren 17an, zabaldu da eta modu askotara egin daiteke:

Ostadar Saiarre taldeak Geltoki kaleko 25. zenbakian duen egoitzan astelehenean ostiralera bitartean (17:00etatik 20:00etara) edo hilaren 22an (11:00etatik 13:00etara) egin daiteke; www.ostadarskt.org edo www.lasarteoriabai.ostadarskt.org web orrialdeetan; lasterketa egunean Mitxelingo frontoian (9:00etatik 10:00etara)

Kros Txikia

Nagusien lasterketa eta sari-banaketa ekitaldia amaitzean, 12:15ak aldera, Korrika Festaren hamaikagarren edizioa hasiko da. Izen-ematea Ostadar S.K.T.ren egoitzan egin behar dute eta haur bakoitzak 5 euro ordaindu behar ditu. Trukean, kamiseta bat, domina bat eta edateko jogurtu bana jasoko dituzte. •

Giro ederra inguruko Ibilbideen Egunean

■ Eguraldi bikaina lagun, herritar askok egin zuten Lasarte-Oria-Andoain ibilbidea ■ Haurrak izan ziren protagonista Ostadarren deialdiari erantzunez ■ Lokatza lagun izan zuten bidean

Giro ederrean burutu zuten Lasarte-Oria eta Andoain arteko bidea herritik abiatu zen mendizale taldeak, Buruntzaldeko Ibilbideen Egunean. Igande goizean goizetik jende ugari ikus zitekeen San Pedro elizaren atzeko plazan, mendiko bastoiak eskuetan eta mendiko botak jantzita. Berdina gertatu zen eskualdeko beste herrietan. Buruntzaldeko Udal eta Kirol Patronatuak antolatutako ekimenak Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, eta Andoain lotu zituen batetik besterako ibilbideen bidez.

Jon ALTUNA EGITEGI

Ilusioa nabari zen txikienen aurpegietan eta gurasoek aitortu bezala, salbuespena izan zen atzokoa: "Normalean mendira joateko muturra ipintzen dute, baina gaur lagunak ere etorri direnez, animatuago ekarri ditugu. Gaitzerdi", aitortu digu haietariko batek.

Hamarretan zegoen jarria zita eta jende askok erantzun zion Ostadarrek eginiko deialdiari. Batez ere haurrak eta hauen gurasoak ikus zitezkeen motxila, kantinplora eta ogi-tartekoa hartuta, baina adin guztietako jendea iritsi zen helmugaraino. Bejondeiela.

Ibilbidea

San Pedro elizan hasi, Andre Joakineneako aldapa igo eta Martin Berasategi aurretik pasatuta, Plazaolako trenaren bidea hartu zuten lehenik.

Ondoren, Azkorte bideko bidegurutzea hartu eta behin Azkorteko ermitara iritsita, pixka bat gorago igo behar izan zuten mendizaleek Andoain markatzen zuten gertxoia

ikusi arte. Azkenik, Andoain aldera jaitsi ziren harrobiaren ondotik igarota eta bertako udaletxean amaitu zen bidaia.

Lokatzetan barrena

Eguneko protagonista berezia, lokatza izan zen. Azkortera igotzeko bidea, ohi bezala, nahiko lokaztuta zegoen eta zenbaitek laprast egin edota bidean oinetakoa galdu zuten. Dena den, ez zen inolako ezbeharririk izan. Hori bai, botak garbi eraman zituenak, erabat lohituta bueltatu zituen etxera.

Andoain, helmuga

Aurpegi alaiak, irribarrea, kantua... Izan ziren nagusi Andoainera iristean, baita herrira bueltatzeko antolakuntzak jarritako bi autobusetan ere (batean ezin izan zituzten denak sartu).

Bi ordu eta laurden inguruko ibilbidearen ostean, sagarra eta ura izan zituzten mendizale guztiek Andoaingo kontrol puntuan. Gainera, txiki-ekienek kamiseta bat jaso zuten opari. •



Ibiltariak Azkorteko ermitara iristen. Handik pixka bat gora egin eta bide guztia behera antzean zuten Andoainera iritsi arte.



Herriko haur eta helduek hartu zuten parte Buruntzaldeko Ibilaldien Egunean.



Behin Andoainera iritsita, merezitako atsedena hartu zuten mendizaleek.



Haurrak San Pedro elizaren atzerpean, ibilaldiari hasiera eman aurretik.

Hondakin organikoaren bilketa aztergai

Bilduko Nerea Sanchezek atez ateko bilketaren datu onak azaldu bazituen ere, 5. edukiontzia onartu zen

Hondakinen bilketa bihurtu zen asteartean egin zen udal batzarrean gai nagusi. Aurreko legealdian atez ateko bilketa probatzearen alde hartutako erabakia bertan behera utzi eta bosgarren edukiontzia probatzeko alderdi sozialistak aurkeztutako mozioa PSE, PP eta EAJren aldeko botoekin onartu zen. Bildu eta Plataformak aurkako botua eman zuten: Bildukoek azalpen luzea eta argudio sakonak eman eta bilketa bi sistemak alderatu eta gero, eta Plataformak, gaia ondo aztertu behar dela eta sistema guztien onurak begiratu behar direla argudiatuz.

Hondakinen bilketa buruzko proposamena bozkatu aurretik, bi sistemak erabiltzen diren herrietako datuak eraman zituen plenora Nerea Sanchez alkate-ordeak, baina zera adierazi ondoren hain garrantzitsua den gaia eztabaidatzeko "mozio bidez egitea ez zaigu modu egokiena iruditu".

Horretarako batzordeak daudela azpimarratu zuen, gaia lasaitasunez eta denborarekin aztertzeko.

5. edukiontzia

Gipuzkoan 5. edukiontzia jarri den herrietan, orain arte, gehienez %35 birziklatzen dela aditza eman zuen Bilduko zinegotziak Lapatz Gipuzkoako bio hondakina jaso eta tratatzeaz arduratzen den erakundeak kaleratutako datuetan oinarrituz. Inguruko herrietako datu esanguratsu batzuek azpimarratu zituen, esaterako, 22.658 biztanleko Zarautzek 5. edukiontzia sistema martxan du eta 186.192 kg hondakin organiko jaso zituen iaz urte osoan. Usurbilek berriz, 6.013 biztanlekin, atez atekoari esker 900.940 kg.

Biztanleria antzekoa duten udalerriak begiratu, 6.700 biztanleko Aretxabaletakoak Usurbilgoekin alderatu zituen. Lehenengoak 5. edukiontziaekin 74.317kg hondakin jaso zituen iaz eta Usurbilek, berriz, aipatutako 900.940 kg atez atekoarekin. Zarautz eta Hernaniren kasuan, lehenak 186.192 kg jaso zituen eta bigarrenak,

atez atekoarekin 2010eko maiatza eta abendua bitartean, 917.820kg. Azkenik, 9.337 biztanleko Zumaia 5. edukiontziaekin, 102.453 kg jaso zituen eta Oiartzunek atez atekoarekin iazko maiatzetik abendura, 451.800kg.

Atez atekoaren alde

Bilduren ustez, "atez ateko eraginkorragoa dela frogatzen dute datuek" eta beraz argia da zein den egin beharreko apustua. Bestalde, gure inguruan gaia politizatu dela salatu zuen zinegotziak eta garrantzitsua "guztien osasuna eta ongizatea bermatzea da eta hori ez da horrela izango erraustegia ondoan dugu bitartean. Baina ez dugu hemen ondoan ez beste inon nahi."

Hondakinena, guztien arazo dela gogoratu nahi izan zuen Nerea Sanchezek eta horretarako "zaborra hondakin bihurtu behar dugu". Gogoratu nahi izan zuen Kataluniako 90 udalerritan atez atekoa martxan dagoela ere, eta herri hauetako udalderrietan alderdi politiko ezberdinek daudela gobernuan, PP, CIU eta PSOE besteak beste.

Gertuko adibideez gain, nazioarteko beste zenbait aipatu zituen Sanchezek: Monza, Italian atez atekoa ezarri zuen lehenengo herria; San Francisco, Kalifornian, 800.000 biztanlekin %77ko gaikako bilketa lortzen duena; eta Flandes-en sei milioi biztanle dituen eskualdean %75etik gorako emaitzak lortzen dituen bilketa.

esperientzia pilotu bat proposatu zuen.

Jesus Zaballos sozialisten ordezkariaren planoan gertatu zena baloratu nahi izan du eta bere hitzetan "EAJk eta PPK alderdi sozialistak egindako proposamenarekin bat egitea erabaki zuzena izan da".



Nerea Sanchez zinegotziak bere azalpenean 5. edukiontziaekin zenbait herritan gertatzen dena erakutsi zuen.

Kostuak

Nerea Sanchez zinegotziak berriro ere datuak eman zituen sistemen kostuari buruzko baieztapen batzuek zuzentzeko. Zenbait alderdik atez atekoa bosgarren edukiontzia baino garestiagoa dela esaten badute ere, Sanchezen iritziz, hori ez da erabat zuzena: "jasotzea bera bai gerta daiteke garestiagoa baina azken emaitza ez. Izan ere koste garbiari erreparatu, 5. edukiontzia litzateke sistemarik garestiena".

Zaborra jasotzeko kostu bat dauka baina ondoren, birziklagai saldu eta dirua eskuratzen da. Horrela, gaika biltzen duten herrietan birziklagai handiagoa denez, diru gehiago irabazten da eta aldi berean kostuak gutxitzen dira. Gainera, jasotzen dena hobeto banatuta dago eta organikoarekin kalitate oneko konposta sortzen dute. Baina biltze sistema honek zinegotziaren hitzetan badu beste onura bat: "lanpostu gehiago sortuko lirakeke zerbitzu honetan eta zuzenean herritarren lanpostuak, ez azpi-contratak."

Donostiako kasua

Donostiako bi auzotan da martxan 5. edukiontzia eta bertako datuak onartezinak dira Bilduren ustez: Amara izan zen 5. edukiontzia jartzeko Donostiako lehenengo auzoa, 2009an. Urtean 310.000 kg jaso zituen, "kopuru hau urtean Donostiako hondartzetan jasotzen den alga kantitatea baino txikiagoa da" esan zuen Sanchezek.

49 edukiontzi daude Amaran, 1/554 biztanleko. Auzoan 26.000 pertsona bizi dira eta %21a ari da edukiontzi hau erabiltzen. Pertsona batek urtean 150 kg bio hondakin sortzen baditu urtean pertsonako 40 kilo inguru jaso dira Amaran. Groseko datuak ez dira argiak, 38 edukiontzi daude, 1/500 pertsonako. Hasiara batean 737 familiak izena eman zuten, 6.333 biztanletik %11,6.

Sozialisten politika

Bestalde, azken urteetan udallean alderdi sozialistaren politika "zaborra ezkatzea" izan dela salatu zuen Bilduk. "Lur

azpiko edukiontziak ezarri ziren horretarako dirutza erabiliz eta lur azpiko mundu paralelo bat sortuz".

Sistema hau zikina dela azpimarratu zuten, "hilabeteetan bertan metatzen da zaborra. Usurbilen ikus daitekeena ez da hori, gain gehienez hiru orduz egoten da zintzilik".

Lurpekoen gastu handia

Gainera lurperatutako edukiontziak konpontzeko beharrezko gastua gehiegizkoa dela salatu zuten, 2010ean 12.956,85 euroko kostea izan zuten eta 2011an jada 17.516,19 euroko gastua eragin dute. Une honetan lau edukiontzi konpontzeko zain daudela adierazi zuen zinegotziak.

Bilduk argi utzi nahi izan zuen ez zutela inolaz ere ezer inposatu nahi, prozesuak beste herrietan bezala, parte-hartzaileak izan behar direlako. "Zaborren inguruko gaian herritar aktibo eta arduratsuak nahi ditugu". Horretarako herritarrek hezi eta ohitzeak, kanpaina ezberdinak abian jartzeko proposamena egin zuten. •

PSE pozik proposamenak lortutako babesarekin

Lasarte-Oriako alderdi sozialista pozik azaldu da plenoan 5. edukiontzia inguruan aurkeztutako mozioa onartu eta atez ateko baztertu zelako.

PSE alderdi sozialistak aurkeztu zuen mozioak 5. edukiontzia herrian jartzeko

esperientzia pilotu bat proposatu zuen.

Jesus Zaballos sozialisten ordezkariaren planoan gertatu zena baloratu nahi izan du eta bere hitzetan "EAJk eta PPK alderdi sozialistak egindako proposamenarekin bat egitea erabaki zuzena izan da".

Honen ustetan 5. edukiontzia da erabaki egokiena kontutan izanda, "herrian guztiz zabaldua dagoela atez atekoaren kontrako iritzia".

Horretaz gain, sozialistek Ana Isabel Prieto plataformako ordezkariaren jarrera kritikatu dute. Hauentzat Plataformako

ordezkariak bere diskurtsoan erraustegiaren eta atekoaren aurka egin zuen, nolabait 5. edukiontzia alde zegoela azalduz eta ondoren, mozioa bozkatzeko garaian, honakoaren kontrako botoa eman zuen. Bilduren bost botoekin bat egin zuen Plataformak.

Jesus Zaballosek Prietoren koherentzia falta salatu du "mozioaren aurkako botoaren arrazoiak Bilduren duen gobernu paktua mantentzeko besterik ez da. Bi alderdien kontrako botoa eman zuen. Bilduren bost botoekin bat egin zuen Plataformak. nahien gainetik jartzen du." •

GALDUTAKO GAUZAK

Galdutako hainbat txirringa, telefono eta pultsera jaso dira Udaltzaingoa

Lasarte-Oriako Udaltzaingoa herritarrei jakinarazi die euren bulegoan galdutako hainbat gauza dituztela jasota eta jabeek hilabeteko epea dutela eurenak direla frogatu eta erreklamatzeko: Besteak beste, hiruzpalau txirringa, hainbat sakeleko telefono aparatu, Jose Luis izena duen urrezko eraztuna, beste eraztun bat, urrezko eta zilarrezko pultserak, neskato baten pultsera, urrezko belarritakoa, emakumezkoaren erlojua eta betaurreko graduatuak. Haien jabeak direla egiaztatzen dutenek hilabeteko epea dute esan bezala jasotzeko Udaltzainen Bulegoan, goizetan, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Erreklamatzeko ez direnak, legeak agindutako bidetik bidaliko dira.

UDAKO TXOKOAK

Udako Txokoetan ibili ziren haurren irudien banaketa

Astehenetik aurrera egongo dira prest Udako Txokotako argazkien CDak. Txokoetan ibili direnen haur guztiei banatuko zaizkie eta jasotzeko Ola kalea 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa beharko dute arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara azararen 25era bitartean. •

KROMOAK

Haur eta gaztetxoek kromo trukea Okendo plazan

Urriaren 29an, larunbata, 11:30etatik aurrera Okendo plazan kromo trukea egiteko asmoa dago. Herriko haur eta gazteak animatu nahi dituzte ekimen honetan parte hartzera. •

Partehartzeari zubiak eraikitzen

Lasarte-Oriako Udala pozik dago ekimenak izan zuen onespenagatik

Hainbat arlotako elkar-teak, alderdiak eta herritarrak bildu ziren ostegun arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian Udal berriaren aurkezpenean.

Pablo Barrio alkateak hitza hartu zuen lehenik. Lasarte-Oriako Udalak herritar eta Udalaren arteko harremana landu eta hobetu nahi duela azaldu zuen bere hitzaldian, "herritarren iritzia entzun eta foroak sortu nahi ditugu".

Honetaz gain, osteguneko lehenengo bilera zela aurreratu zuen, "herritarren kezkek ezagutzeko. Aurrerantzean arloka egingo dira".

Asmoak

Ostean, Udal batzordeetako lehendakariak, Bildu, EAJ eta LOHP alderdietakoek, bere burua aurkeztu eta bakoitzak bere arloan egingo dena azaldu zuten.

Aipagarria da, inmigrazioari dagokionez, Gorka Lizarragak esandakoa: "Udaletik errespetua landuko da. Ez bakarrik egun datozen etorkinekin bakarrik. Gure kultura eta besteena uztartzen saiatuko gara".

Era berean, Ana Prieto LOHPko zinegotziak, Zerbitzu publikoetako batzordean auzo elkarteekin lan egingo duela adierazi zuen eta batzorde irekiak egin nahi dituela aurreratu zuen.

Nerea Sanchezek ingurumen arloari buruz, "errauste-gia eraiki nahi dute bertan eta guk hori ekiditeko, hondakinen berrerabilpena eta birziklapena bultzatuko dugu" azpimarratu zuen.

Eta hirigintza arloan, Plan orokorra egin behar dela eta plangintza herritarrei zabaldu nahi dietela jakin arazi zuen: "Haiek erabaki dezaten non eta nola eraikiko den" adierazi zuen.



Lasarte-Oriako Udaleko batzordeetako lehendakariak haien asmoak agertu zituzten osteguneko aurkezpenean.

Ogasunari dagokionez, Estitxu Alkorta batzordearen lehendakariak, Udalaren egoera ekonomikoa tamalgaria dela salatu zuen eta 2012. urteko aurrekontuetan lanean ari direla adierazi zuen.

Gainera, alderdi jeltzaleko zinegotziak, hurrengo urteko tasa eta zergak ez direla igoko aurreratu zuen. Eta horretarako, Udalaren errekurtsoak optimizatzen saiatuz gastu korrontea murriztuko dutela jakin arazi zuten.

Tasio Arrizabalagak, aldiz, kirol arloan Jon Tecedor beka profesionalentzat ez izateko asmoa dutela eta kirol azpiegitura zaharkituen konponketa pixkanaka egingo dela jakin arazi zuen.

Jaien arloan, 2012ko San Pedro jaiak partehartzailak eta herrikoiak izatea nahi duela azpimarratu zuen Bilduko zinegotziak eta horretarako bilera irekiak egingo direla aurreratu zuen.

Hau guztiaz gain, Boris Nogales Hezkuntza, Kultura eta Euskara batzorde buruak euskara eta kulturaren gure

herriak duen potentziala azpimarratu zuen.

Herriko taldeek haien ekintzak argitaratzeko web orrialdea martxan jarriko dela aurreratu zuen eta honetan sarrerak kudeatu ahal izango direla azpimarratu zuen.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren esku egon beharko luketen haur eskola eta jangelaren egoerari buruz hitz egin zuten.

Galderak

Aurkezpenak amaitzean, herritarrei hitza eman zitzaizkien galderak egiteko.

Hainbat gai jorratu ziren, Oria auzoko proiektuak, krisi egoerarekin beste formula batzuk bilatzea, herritarren kezka nola jakin arazi daitezkeen... Baina Hiribusa eta zerbitzuaren jarraipena izan zen interes gehien sortu zuena.

Balorazioa

Udalak prentsari helarazitako oharean, balorazio oso positiboa egiten du aurkezpen ekitaldiaz.

Ekitaldiaren helburua herriko talde eta eragileekin lehenengo harreman bat izatea zen, taldeekin elkar lanerako zubiak ireki eta partehartzeko ideia mahai gainean jartzeko.

Erantzun ona

"Honen aurrean, erantzuna oso ona izan da, mota guztietako talde eta herritarrak gerturatu baitira, 65 pertsona inguru herritar eta elkarteekin izenean" azaldu dute hiru alderdiek oharrean.

Udalaren ustez, jendeak egin zituen ekarpenak interesgarriak, ugariak eta gai askotarikoak izan ziren.

Izan ere, aurkezpen honen helburua ez zen gai guzti horietan sakontzea, baizik eta Udalak lehenengo oinarria, herritar eta elkarteekin lehenengo harremana sortzea.

Gauzak honela, erantzuna ikusita, hurrengo pausoa osteguneko aurkezpen ekitaldiari forma ematea izango dela adierazten dute eta "behar diren gune eta foroak sortzea, planteaturiko asmoak gauzatzeko hasteko". •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskararen Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

DIEGO LETAMENDIA BELZUNCEREN erakusketa zabalak da urrian zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Ostirala, 21

Kontzertua

PSICOACUSTIC bakarlariaren indie, brit pop bertsioren emanaldia, Xpression! elkarte eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Saialk sinatutako hitzarmenean barruan. KULTURETXEKO KAFETEGIAN, **20:00etan**



Larunbata, 22

Antzerkia

MARIE DE JONGH konpainiak ROBOT MAITEA haurrentzako antzerkia eskainiko du. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan**, EUSKARAZ Sarrera, 3,30 euro.

Jazzaren lilura

OKENDO ZINEMA taldearen eskutik "CHICO Y RITA" filma ikusgai izango da. 40ko hamarkadako Habanan, Chicok eta Ritak maitasun harreman sutsu bat hasiko dute. Chico jazzarekin maiteminduta dagoen pianista da, eta Ritak kantari famatua izan nahi du. Ezagutu eta banandu, hortik aurrera patuak elkartu eta bereiziko ditu, bolero baten pertsonaien gisara.

OSTEGUNA, URRIAK 20
21:30EAN
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
SARRERA 4,30 EURO

Igandea, 23

Zinea

"CARS 2" pelikula eskainiko dute, haurrentzako zinema atalean. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan**, GAZTELANIAZ. Sarrera, 3,30 euro.



Ostirala, 28

Kontzertua

TOLOSAKO XXV. ABESBATZEN JAIALDIAN parte hartzen duen Letoniako "CON ANIMA" haur abesbatzaren kontzertua. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **20:00etan**



Kontzertua

THE BOOGALORDS taldeak funk eta jazz doinuez betetako kontzertua eskainiko du. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan**



Igandea, 30

Zinea

Haurrentzako zinema atalean, ARTHUR ETA MUNDUEN GERRA filma eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan**, EUSKARAZ. Sarrera, 3,30 euro.

Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera 10:00 - 13:00 eta arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Oharrak

Biyak Bateko irteera

Lizarrara

Biyak Bat erretiratuen elkar-teak jakin arazten du Lizarrara irteera antolatuta duela urriaren 27an, osteguna.

Inskripzio epea gaur astelehena, urriak 17 irekiko da. Izena eman nahi duenak egoitzako bulegora hurbildu behar da 10:30etik 12:30era. Elkarteko bazkideek 34 euro ordaindu behar dute eta ez bazkideek, aldiz, 38 euro.

Udako Txokoetako argazkiak

Gaur, urriaren 17tik aurrera prest egongo dira Udako Txokoetako argazkien CDak.

Txokoetan ibili direnen haur guztiei banatuko zaizkie eta jasotzeko Ola kalea 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar da 17:00etatik 20:00etara azaroaren 25a arte.

Lasarte-Oriako DYaren

25. urteurrena

Aurten 25 urte beteko ditu Lasarte-Oria eta Usurbilgo DYA errepidean laguntza eskaintzen duen erakundeak eta azaroaren 5an, bestekak beste, bazkari batekin ospatuko dute urteurrena.

DYako bazkide eta bazkide ohiak daude gonbidatuta eta informazio edo argibide

gehiago eskuratu nahi dutenek DYaren 943 46 46 22 telefono zenbaki nagusira deitu beharko dute.

Euskal Dantza taldea

Landaberri BHN entsaiatzen duen Euskal Dantza taldea, Felix Telleriak zuzendutakoa, lanean hasiko da.

Entseguak astearte eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldirikarria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eguzki



Herriko andaluziarren elkarteko zuzendaritzaren eta Udal ordezkarien arteko brisidisa egin zuten ostirailean.



Garai bateko trenen maketak jarri zituzten Semblante Andaluz elkartean larunbatean.

Asteburu mardul eta bizia Semblante Andaluz elkartean

■ Festa giroan burutu dute herriko andaluziarren elkartean kultur astea ■ Ekitaldi ezberdinez betetako asteburua izan da

Jon ALTUNA EGITEGI

Astebukaera ederra bizi izan zuten Atsokabarreko bizilagunek Semblante Andaluz elkartean Kultur Astea dela eta. Eguraldi onaren laguntzaz hainbat ekitaldi ezberdin burutu ziren ostiraletik igandera bitartean.

Egitarau zabala prestatu zuten Semblante Andaluz elkartean eta Atsokabarreko Golf plazan, besteak beste, dantzaldiak, kantuak, bazkari, saskibalo partida, "sevillana", buruhandi... Denen artean festa polita osatu dute aurten-goan eta hurrengoetarako gogoz daude jada Semblante Andaluz elkarteok.

Extremaduratik trenez

Semblante Andaluz-ek antolatutako ekitaldien barnean, Adolfo Lumbereras "Asociación de amigos del ferrocarril de Gipuzkoa" elkarteko presidentek hitzaldi bat eskaini zuen larunbat eguerdian tren

munduaren inguruan.

Jende ugari joan zen adi-tuaren hitzak entzuter eta asko gozatu ahal izan zuten bertaratuek, batez ere zaharrenek. Izan ere, Lumberersek 1965. urtetik hasita, gaur egunerainoko bidaia historikoa osatu zuen, garai hartako trenen argazkiz lagunduta.

Andaluzia eta Extremaduratik hasi zuen bidaia, bertako geltoki eta herriak erakutsiz, Euskal Herriraino iristeko.

Azken finean, duela 40 urte inguru Lasarte-Oriara lan bila etorritakoen bidaia "metafora" izan zen. Ikusle zaharrenek hunkitu egin ziren argazki sortan euren jatorrizko herri andaluziarra edo bertako geltokia ikustean; han bizitako garai gogorak gogoratzean; eta orain nola dauden ikustean. "Oroitzen kutunak" etorri zaizkiela aitortu zigun Lumberersek.

Gainontzean, trenen hiru maketa jarri zituzten ikusgai eta txikienek izugarri gozatu zuten trenak jira eta bira nola zebiltzan ikusita.

Antolakuntza, pozik

Abdon Fernandez Semblante Andaluzeko presidentek aitortu digunez, "oso kontent" daude asteburuan antolatutako festarekin.

Ospakizuna elkartetik atera eta Golf Plazara eramatea "erabaki egokia" izan dela deritzo. Elkartetik haratago, jaia auzo guztian zehar hedatzea lortu duelako. Jendearen erantzunarekin gustura dagoela ere onartu du.

Mus eta tutean

Extremadura eta Andaluziako elkarteak nor baino nor aritu ziren karta jokoan. Berdinketarekin amaitu zen, musean Dominguez eta Cumbres Extremadura Etxekoek irabazi baitzuten eta tutean berriz, Semblante Andaluzeko Grande eta Fernándezek.

Bestalde, gitarra elektrikoaren zozketan 180 izan zen zenbaki saritua. Txartelaren jabea aste honetan pasa daiteke elkartetik dagokion oparia jasotzeko. •



Extremadura eta Andaluziako elkarten arteko lehia berdinketarekin amaitu zen.



Igandean Zambra taldearen emanaldiak eman zion amaiera Kultur Asteari.



Liga garaipenaren urteurrena.-

Errealak duela 30 urte irabazi zuen bere lehenengo Liga Txapelketa. Hori ospatzeko, Tito Irazusta kazetariak gidaturik, Julio Olaizola lasarteiatarra eta "Bixio" Gorri eta Roberto Lopez Ufarte irundarrak tertulia bat egin zuten ostiral arratsaldean Golf plazako eszenatokian. 80-81 denboraldian lortu zuen balentria hura Errealak, Xixonen. Egun hura gogoratzeke, Teledeporte kateak maiatzean emititutako erreportaje bat ikusteko aukera eduki zuten bertaratuek eta ostean, Tito Irazustaren galderei erantzun zieten hiru futbolari ohiek.